

INSTALAZIO ARTISTIKOEN LANKETA HAUR HEZKUNTZAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Inciarte Gozalo, Ane.

ZUZENDARIA: Alvarez Uria, Amaia.

GRADUA: Haur Hezkuntza

MINORRA: Dramatizazioaren bidezko Adierazpena eta Komunikazioa

2022-2023 IKASTURTEA

Laburpena: Gradu Amaierako lan honetan, gaur egun instalazio artistikoak hezkuntzaren esparruan duen zeregina aztertu nahi da, zehazki, 0-6 urte bitarteko haur-etapan. Horretarako, hainbat fasetan egituraturako ikerketa-lana egin da. Hezkuntza artistikoan, dramatizazioan, arte garaikidean edo Haur-Hezkuntzan erreferenteak diren autoreak indartzen dute lan hau, lan honen hasieran egindako bilaketa bibliografikoari esker. Egungo egoeraren azterkuntza, haur-hezitzaile bati eginiko bi galdegegiren bidez ere egin da. Amaitzeko, esku-hartze bat egin da 4 urteko hurrekin instalazio artistikoen onurak egiaztatzeko.

Hitz gakoak: Haur Hezkuntza, Hezkuntza artistikoa, dramatizazioa, instalazio artistikoa, jolas sinbolikoa.

Resumen: En el presente trabajo de Fin de Grado, se quiere analizar el papel que desempeña la instalación artística hoy en día en el ámbito educativo, concretamente en la etapa Infantil que comprende entre los 0 y los 6 años de edad. Para ello, se ha hecho un trabajo de investigación estructurado en diferentes fases. Referentes en materias como la educación artística, dramatización, arte contemporáneo o Educación Infantil respaldan este trabajo. Como hemos podido observar en la búsqueda bibliográfica que se realizó al inicio de este trabajo. El análisis de la actual situación ha sido secundado con dos cuestionarios realizados a una educadora infantil. Para terminar, se ha llevado a cabo una intervención para comprobar los beneficios de las instalaciones artísticas con niños de 4 años.

Palabras clave: Educación Infantil, Educación artística, dramatización, instalación artística, juego simbólico.

Abstract: In this Final Degree project, the aim is to analyse the role played by art installations today in the field of education, specifically in the infant stage, which is between 0 and 6 years of age. In order to do so, a research work has been carried out structured in different phases. The work has been supported by referents in subjects such as art education, drama, contemporary art and early childhood education. As we have been able to observe in the bibliographic search carried out at the beginning of this work. The analysis of the current situation has been supported by two questionnaires carried out with an early childhood educator. Finally, an intervention was carried out to test the benefits of art installations with 4-year-old children.

Key words: Child Education, Artistic Education, Dramatization, Artistic Installation, Symbolic Play.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. MARKO TEORIKOA	5
2.1. HEZKUNTZA ARTISTIKOAREN GARRANTZIA HAUR HEZKUNTZAN	5
2.2. DRAMATIZAZIOA ETA GORPUTZ ADIERAZPENA HH-KO GELETAN	7
2.3. JOLAS SINBOLIKOA	10
2.4. INSTALAZIO ARTISTIKOA HEZKUNTZA-METODOLOGIA GISA HH-N	11
3. HELBURUAK	14
4. METODOA	14
4.1. DISEINUA ETA METODOLOGIA	14
4.2. PARTAIDEAK ETA TESTUINGURUA	14
4.3. ALDAGAIK ETA TRESNAK	15
4.4. ESKU-HARTZEAREN PROZEDURA ETA DISEINUAREN AZALPENA	18
4.4.1. SARRERA	19
4.4.2. MATERIALAK	20
4.4.3. MATERIALAREKIKO HELBURUAK	21
4.4.4. EBALUAZIO IRIZPIDEAK	21
5. DIAGNOSIA	22
5.1. AURREIKUSPENAK	22
5.2. EMAITZAK	22
5.3. ONDORIOAK ETA HAUSNARKETA	24
5.4. HOBEKUNTZA PROPOSAMENA	30
6. BIBLIOGRAFIA	31
7. ERANSKINAK	34
I. ERANSKINA: JARDUERA EGIN BAINO LEHENAGOKO GALDETEGIA	34
II. ERANSKINA: JARDUERA EGIN ETA ONDORENGO GALDETEGIA	36
III. ERANSKINA: LANDA-OHARRAK	38

1. SARRERA

Haurrei arteekin harremanetan jartzeko aukera eman behar zaie, ez artista bihurtzeko, baizik eta beren gaitasun kognitibo, intelektual, emozional eta sentsozialei mugarik ez jartzeko. Arteari esker ikasleek onura desberdinak eskuratu ditzakete, haien garapen fisiko zein psikologikorako tresna garrantzitsua izan baita. Zoritxarrez, gure hezkuntza-sistemak askotan uko egiten dio hezkuntza-metodo berriak sartzeari. Artea betidanik izan da hezkuntzaren esparruan gutxietsitako ikasgaia. Beti izan da garrantzi gutxien eman zaion irakasgaia eta seriotasun gutxien zuena. Horregatik, arratsalde edo aste amaieran eman ohi den irakasgaia da. Gainera, artea eskulanekin soilik lotu ohi da, hala ere, hori baino askoz gehiago da. Larburbilduz, urte hauetan zehar materia hau ez dela behar bezala garatu esan beharra dago eta era oso oinarritzko batean landu dela ere.

Horregatik guztiagatik, nire ikerketaren ardatza hezkuntzan arteak duen garrantzia aurkeztea izan da. Lantzen den gaia jorratzeko ideia irakasgai honek duen garrantziaz abiatzen da, baita dituen onurak ezagutzeko eta zabaltzeko beharra ikusten dudalako ere. Era berean, askoren galderei erantzuna emateko egokia izango da.

Aipatutakoa behatzeko, aztertzeko eta frogatzeko, Haur Hezkuntzako 16 ikasleko 4 urteko gela batean esku-hartze bat burutu da. Jarduera hau instalazio artistiko bat izan da, nik berariaz ikasle horientzat diseinatua eta sortua. Honetaz gain, bi elkarrizketa egin zaizkio gelako tutoreari, arte-esparru honetan hezitzaile profesionalek dituzten ezagutzei buruzko ideia bat izateko. Elkarrizketa bat esku-hartzea burutu baino lehen eta beste bat burutu ondoren egitearen arrazoia, nire jarduerak hezitzaileengan motibazioa eta ezagutza transmititu duten frogatzea izan da. Honi esker, lanean azaltzen den bezala, emaitza desberdinak lortu ditugu eta ondorio desberdinetara eraman gaituzte.

Hori horrela, lan honen xedea, Haur Hezkuntzan arteak duen garrantzia ikusaraztea izan da, batez ere arte-instalazioen lanketak dakartzan onurak frogatzea. Baita, instalazio artistikoen aurrean irakasleek duten ezagutzaren berri izatea eta aztertzea, baita eskolan baliabide berri bat zertarako erabili daitekeen erakustea ere.

Azkenik, informazioa era egoki batean ulertzeko lana hurrengo eran antolatu dut: lehenik eta behin, gaia indartzen duen marko teoriko bat osatu da ezinbesteko autoreekin. Jarraian ikerlan hau bideratu dituen helburuak aipatzen dira. Bigarrenik, 'metodoa' izeneko atala daukagu, atal desberdinez osaturik dagoena eta bereziki esku-hartzearen datu

bereizgarriak azaltzen dituen. Ondoren, esku hartzearen ondorioz lortutako emaitzen atala daukagu, baita emaitzetatik ateratako ondorioak ere. Azkenik, lan honetan egin nahi ditugun hobekuntzak proposatzeko atal bat prestatu dugu, erreferentzia eta eranskinak atalekin bukatuz.

Bide batez, eskerrak eman nahi nizkieke San Vicente de Paul ikastetxeko kideei, bereziki 4 urteko gelako tutoreari baita haurrei ere, eskainitako denbora eta lanarekiko konpromisoagatik. Izan ere, lana gauzatzeko ezinbestekoak izan dira, batez ere esku-hartzearen alderdiari dagokionez. Haiei esker nire proiektua zentzuzkoa izatea eta errealitatera eramatea lortu dut.

Eskerrak eman nahi nizkioke ere Ainhoa Gómez Pintado-ri nirekin hainbeste ezagutza partekatzeagatik eta galduta sentitu naizenean emandako aholkuengatik.

Amaitzeko, lorpen hau prozesu guztian zehar egon direnei ere eskertu nahiko nieke. Nire tutorea izan den Amaia Alvarez-i, eman didan laguntza guztiagatik eta izan duen pazientziagatik; eta nola ez nire familiari ere, nire babesik handiena direlako beti.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. HEZKUNTZA ARTISTIKOAREN GARRANTZIA HAUR HEZKUNTZAN

Atal honetan, arte-hezkuntzak Haur-Hezkuntzan duen garrantzia balioesten da; horretarako, jatorrira jo behar dugu, eta lehenengo haurtzaroko hezkuntzaren egungo egoera aztertzen hasi behar dugu, baita horrek gizartean duen aintzatespena ere.

Bettelheim-ek (1982) esaten zuen moduan, hezkuntza barne-indar askatzailea izan dadin, ez dugu tresna-kategoriara degradatu behar; aitzitik, hazkunde eta garapen pertsonalaren funtsa bihurtu behar dugu.

Hala ere, garrantzitsua da gaur egun lehen haurtzaroko hezkuntzaren egoera onartzea; izan ere, badirudi ez duela bere norabidea eta nortasuna aurkitu, eta, orduan, hainbat pedagogiaren eta proposamenen moden arabera mugitzen ari da, asmo zehatz batekin kokatzeko biderik aurkitu gabe (Escobar, 2006).

Hasierako mailaren garrantzia haurren garapenean duen eraginean nabarmentzen da; horregatik, haurrek lehen adin horietan dituzten ahalmenak ahalik eta gehien aprobetxatu behar dira. Leonek (1995) dioenez, fisiologiak, osasun-zientziek, soziologiak, psikologiak eta hezkuntzak, bizitzako lehen urteen garrantzia agerian utzi dute, adimenaren garapenerako ez ezik, pertsonen garapen kognitibo, psikomotor, moral, sexual, sozial eta hizkuntzaren garapenerako ere. Bizitzako lehen urteetan, neurona-zelulen garapenaren zatirik handiena gertatzen da, baita garuneko nerbio-konexioen egituraketa ere. Prozesu hori hainbat faktoreren mende dago, hala nola nutrizioa eta osasuna; hala ere, eragin handia dute ingurunearekiko interakzioen kalitateak eta eskura dauden estimuluen aberastasunak eta aniztasunak. Ikerketen emaitzek agerian utzi dute haurren adimenaren garapen gehiena 7 urte bete aurretik gertatzen dela.

Ikaskuntza garapenean eta hezkuntzan oinarritzen da, motibazioak eta jolasak lagunduta, eta jokabide-aldaketetan, egokitzapen-hobekuntzetan, saiakuntza-errore hobekuntzetan edo lehen faseetako imitazioan islatzen da. Batzuek arlo mentalera edo intelektualera mugatzen dute, baina pertsona bakoitzaren osotasuna hiru nukleok osatzen dute: kognitiboak, emozionalak eta gorputzekoak (Mundet et al., 2015), eta ez da horietako bat ere alde batera utzi behar. Honetan, hezitzaile gisa dugun zeregina erabakigarria da.

Naturala izateko, tentsiorik gabe hitz egiteko eta bakoitzaren beharrak errespetatuz komunikatzeko gaitasuna da hezitzaile batek izan behar duen beste oinarrietako bat. Adin horiekiko interakziorako funtsezkoa da pedagogoa jaria kortasuna lortzea zentzu horretan, sormenari eta irudimenari bide emanez, inprobisatzeko eta une bakoitzean egoerara egokitzeko aukera emanez. Haurren emozioak lagunduz eta ulertuz batera. Pedagogoa aldarte erabakigarria da ikasle horiek lasai egon eta harrera ona izan dezaten. (Tresserras, 2014).

Gero eta aditu gehiagok azaltzen dute artea, eta, zehazki, antzerkia edo adierazpen dramatikoak, estakuru bat direla pedagogiaren praktika Barret (1989) autoreak proposatzen duen bezala egiteko. Hau da, ideal teoriko eta diskurtsibo bat pribilegiatu beharrean, esperientzian oinarritutako pedagogia defendatzen du, faktore guztiak hartzen dira kontuan eta ikaslearekiko erlazioa koexistentzian oinarritzen da, eta ez boterean (Abad, 2009; Tejerina, 1994; Vieites, 2012). Fernando Savaterrek esan zuenez (1997) benetako hezkuntza ez da soilik pentsatzen irakastea, baizik eta pentsatzen denari buruz pentsatzen

ikastea ere. Hausnarketa eta ikaskuntza eskutik joango dira beti, eta artea oso tresna erabilgarria da hori praktikan jartzeko. Dolores Guerrero Cruz-en hitzetan, (1996) artea funtsezko elementua da guztion bizitzan. Artearen bidez, gizarteari eskatzen dio bere burua ulertzeko, arazoei, jarrerari eta jokabide-moduei aurre egiteko eta, azkenik, eraldatzeko erronka onartzeko. Honen harira, Vigotskyren hurrengo ekarpena ere interesgarria da. Mendeetan zehar, artea gizartearen bide lagun izan da, gizakion pentsaera, ikuskera eta sentipenak azalertzeko baliabidea izan dugu betidanik. Arteak gainera ikaskuntza sendoagoak lortzen laguntzen digu. Hezkuntza artistikoan ikaskuntza emozionala ematen da, honek esperientziak eta ikerketak erakutsi dutenez, informazioa sendoago, irmoago eta luzeago gogoratzea dakar, kutsu emozionalez blaituta baitago (Vigotsky, 2005).

Noemi Martinez-ek (2004) argi utzi nahi izan zuen gaur egun hezkuntzan eta arte-hezkuntzan inplikaturik gaudenok, ez dugula soilik teknika artistiko batzuen irakaskuntzan eta artista batzuen lana ezagutarazten geratu behar; aitzitik, ikusizko irudietan ezkutaturiko mezuei ere garrantzia eman behar diegula: arazo sozialei, historikoei, generokoei, arrazistei. Hor dago benetako ikaskuntza eta hezkuntza-artistikoaren gakoetako bat.

Bukatzeko, Elliot W. Eisnerrek (1990) arteak hezkuntzan duen lekuari buruz eskaintzen dituen hainbat justifikazio aipatuko ditut:

- lhesbidea aurkitu aisialdia ondo erabiltzen ikastea.
- Izaera terapeutikoa lortu hezkuntzan giltzapetutako emozioak askatzearen bitartez.
- Pentsamendu sortzailea garatzea.
- Irakasgai akademikoak hobeto ulertzeko laguntza ematea, batez ere gizarte-zientzietan.
- Muskulu delikatuenean garapena erraztea, haurren koordinazioa hobetzen duena.

2.2. DRAMATIZAZIOA ETA GORPUTZ ADIERAZPENA HAUR HEZKUNTZAKO GELETAN

Haur Hezkuntzan, hots, 0-6 urte bitarteko haurretan, mugimenduak eta keinuak adierazteko, jolasak ezinbestekoak dira. Gorputza ezagutzeko eta mugitzeko aukerak eta mugak aztertzean beste hainbat ekintzen artean, antzezpena, imitazioa eta adierazpena sortzen dira (Vizcarra, 2007). Ekintza hauek bideratzeko, jolas dramatikoak didaktikoki oso baliagarria da; izan ere, honen bidez, haurren irudimenera, espontaneitatera, sormenera

eta garapen afektibo, intelektual eta sozialera iritsi gaitzke. (Morón, 2011). Dramatizazioa hezkuntza tresna eta espazio bat da, eskola-curriculumarekin beste arlo batzuetan garatzea ahalbidetzen duena. Gizarte-trebetasunak garatzeko eta balioetan hezteko tresna indartsua da (Nuñez eta Navarro, 2007).

Tejedok (1997) baieztatzen du dramatizazioa prozesu bat dela, eta haren helburu nagusia da adierazpen pertsonala garatzea, batez ere joko dramatikoaren eta haren elementuen bidez. Antzerki-hizkuntza eta forma dramatikoak globalizatzeko teknikak erabiltzea, ere garrantzitsua da, baina baita gizabanakoaren adierazpen, jolas edo komunikazio-garapena bultzatzen duen edozein adierazpen, jolas edo jardura motaren bidez ere. Hurrek prozesu hauek gorputzaren bitartez bideratzeko erraztasun handiagoa dute ahozkoaren bidez baino, horregatik landu behar da Haur Hezkuntzatik, musika, erritmoa eta gorputz mugimenduen bitartez (Esteve-Garcia, 2013). Gainera, adierazpen dramatikoak eta antzerkiak aukera ematen dute helduak hain ohituta dauden hizkuntzan eta pentsamenduan oinarritutako komunikazioa alde batera uzteko, eta beste hizkuntza mota batzuei bide ematen diete, zentzumen guztiak barne hartzen dituztenak eta begiradak konektatzen dituztenak, txikien artean elkar ulertzeko modu ohikoena baita. (Tresserras, 2014)

Dramatizazioa hezkuntza esparruan barneratzeak garapen afektibo eta soziala lantzea ahalbidetzen du, parte-hartzaileen arteko motibazioan emaitza positiboak lortuz eta haien sormena eta autoestima bermatuz (Sánchez-Romero, 2010). Bestalde dramatizazioan ez da azkenengo emaitza kontuan hartu behar, prozesu osoa baizik. Prozesuaren bitartez hurrek arazoak esperimendatuko dituzte eta haiei aurre egiteko baliabideak aurkituko dituzte ekintzaren bitartez (Gutierrez, 2004).

Gorputz adierazpena gorputzak kanpoko munduaren aurrean hizkuntza propio batekin agertzeko duen gaitasuna da. Adierazpen hau keinuz, aurpegi-adierazpenez, mugimenduz, jarrerez eta azkenengo hauen aldaketek osatuta dago (De Andrés-Rubio, 1993). Hasiera batean, hurrek gorputza bakarrik erabiltzen du komunikatzeko; bere hizkuntza bakarra gorputzezkoa da eta hau erabiltzen du bere behar fisiologikoak, afektuak, emozioak adierazteko eta besteekin ideiak partekatzeko (Cáceres, 2010).

De Andrés-Rubio (1993) Gorputz adierazpena gorputz hizkuntzaren eta mugimenduaren bidez, egoera animikoak, emozioak, ideiak, pentsamenduak eta

sentimenduak kanporatzen eta informatzen duen komunikazio modu bat dela gaineratzen du.

Honi esker, pertsonak segurtasun handiagoa izango du bere baitan, eta sozializatorako ahalmenak emango dizkio, gizartean osorik garatzeko aukera emango diotenak. Horrek bizi-kalitate handiagoa eta hobea bermatuko dio. Gainera, gorputz-adierazpenak ematen duen aldakortasun eta egokitasun errazaren ondorioz, hainbat hezkuntza irakasgai ezberdinetan erraz molda daitezke, hala nola, arte-hezkuntza, hizkuntza, literatura, musika, plastika, etabarretan, baita beste alderdietarako ere, hala nola, kultura ezberdinak ezagutzea, ingurune naturalarekin kontaktua izatea, edo sozializazio teknikak barneratzea ere. (Learreta, Sierra eta Ruano, 2005). Beraz, laburbilduz, gorputz adierazpena, gizakiak inkontzienteki edo kontzienteki gorputzaren bitartez adierazten duen guztiari deritzo (Aranaz, 2014).

Dominguezek (2010) aipatzen duen bezala, dramatizazioak gorputz adierazpenean eta keinuetan eragina dauka modu positiboan. Izan ere, zentzua ematen dio gorputzari (eta honen atal bakoitzari: besoak, hankak, burua, begiak...), ekintzak egiteko duen gaitasunari eta gorputzak berak izan ditzakeen mugei. Garapen psikomotorrak eta mugimendu espazialak indartzen ditu, hala nola, lateralitatea menperatzea, konfiantza eskuratzea eta segurtasunez mugitzea. Gainera, berebiziko garrantzia du sormen prozesuetan, originalitatean eta garapen musikal zein plastikoan.

Honen harira, aipatzekoa da dramatizazioak adierazpen askerako bideak ematen dituela jolas eta esperimentazioaren bidez, eta lengoia ezberdinetan gaitasunak garatzea ahalbidetzen du sormena bultzatuz (Nuñez eta Navarro, 2007). Beraz, irakasleek sormena, konfiantza eta autoestimua sustatzeko ezinbestekoa da errekurtsio dramatikoak ezagutzea eta gelan egoki aplikatzen jakitea (Argüelles eta Zelaieta, 2015).

Dominguezek (2010) aipatutakoarekin jarraituz, edozein obraren antzezpen edo interpretazioak, haurrak, haien buruekin eta gainontzeko haurrekin kritikoak izatera bultzatzen ditu. Hala ere, esperimentatutako egoera berrien aurrean, barne galderak eta hausnarketak planteatzen eta ingurugiroa beste begi batzuekin ikusten hasten direlako.

Honekin batera eta dramatizazioan murgildu garen momentutik ezinbestekoa da jolas dramatikoa aipatzea; jolas dramatikoa, ez da soilik manifestazio artistiko baten oinarriko elementu bat, antzerkia izan daitekeen bezala. Jolas mota honek, ekintza ludiko baten bitartez haurrei esperientzia esanguratsuak bizitzea ahalbidetzen die, euren garapen integrala sustatuz. Haurrek burutzen duten joko honetan, argi ikus daiteke artea eta jolasaren arteko erlazioa (Sierra, 1995).

Hau kontuan izanda, Haur Hezkuntzako etapan dramatizazioa lantzea ezinbestekoa da lan kooperatiboa sustatzen duelako, hots, haurrek, talde lanean jarduteko ohitura eskuratzen dute eta sortzen zaizkien ideiak gainontzekoekin partekatzen dituzte (Cervera, 1981 eta Motos, 1992). Horrez gain, dramatizazioa, lengoia plastikoa, gorputzekoa, musikala, artistikoa eta ahozkoa erabili, integratu eta sinbolizazio prozesu bat izateagatik ezagutzen da (Argüelles eta Zelaieta, 2015).

2.3. JOLAS SINBOLIKOA

Jolasa elementu natural gisa agertzen da haurraren garapenean, eta inguruan duen mundua ezagutzeko aukera ematen dio. Bere izatearen dimentsioak praktikan jartzen dituen ikaskuntza-biderik eraginkorrena da. Jolasaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat da berez plazera sortzen duen jarduera bat dela: esperimentatzeko, mugitzeko, norberaren aukerak eta mugak ezagutzeko, esploratzeko eta deskubritzeko (Muñoz, 2008).

Onura izugarriak dakartza jolas sinbolikoak. Adibidez, bitarteko eraginkorra da hizkuntzaren bilakaerarako eta hizkuntza-gaitasuna zabaltzeko. Ikuspegi afektibotik, jolas sinbolikoa bizitzako lehen urteetan oreka psikikoa lortzeko modu bat da (Abad eta Velasco, 2011).

Haurrak jolasaren bidez simulatzen du bizitza, eta errealitatean izango lituzkeen ondorioei aurre egiteko aukera eta saiakera horretan huts egiteko aukera ematen dio.

Haurraren bigarren urtetik aurrera, ariketa-jokotik jolas sinbolikora igarotzen da, hizkuntzaren jabetzak eta antzezpenaren hasierak markatuta (Piaget, 1959).

Abad eta Velascoren arabera (2011), funtzio sinbolikoa egoerak, objektuak, animaliak edo ekintzak irudikatzeko eta gogoratzeko gaitasuna da, une horretan aurrean ez daudenean eta zentzumenek hauteman ezin dutenean.

Haurra jolasteko eta ikasteko hitzak erabiltzen hasten da, eta bere jolasetan sinboloa sartzen hasten da, gauza bat objektu edo keinu baten bidez irudikatzeko aukera ematen diona. Jolas sinbolikoaren bidez, rol-jokoa agertzen da, eta, horren bidez, haurra beste pertsona bat bihurtzen da eta haren ezaugarrien arabera jokatzeko du (Abad eta Velasco, 2011).

Moylesek (1990) dio funtzio sinbolikoa eskuratzeak haurraren munduarekin harremanak izateko beste modu bat dakarrela, errealitatetik urrundu eta bere kezken araberrako fikziozko egoera bat sortzeko. Aukera ematen du haien nahiei, debekatutakoari, beldurrei eta ziurgabetasunei aurre egiteko, eta horiek asimilatzen eta gainditzen laguntzeko asmotan sinbolikoki erreproduzitzen ditu egoera horiek.

Abad eta Velascoren *El Juego Simbólico* (2011) liburuan haurrei askatasunez jolasteko aukera emateko beharra defendatzen da; izan ere, horrela jokatuko dute, eta jolasean sentitzen dutenaren arabera adieraziko dute beraien barne-munduan dutena.

Artea eta jolasa alderatzen baditugu, lagunkidetzat har daitezkeela konturatuko gara. Izan ere, kontuan hartzen badugu biak sinbologiaz eta sentimenduz betetako adierazpen-jarduerak direla, eta esploratzeko eta bat-batekotasunerako bitartekoak direla, eta horien bidez bai artistak bai jolasten duen haurrak mundua berrantolatzen dutela argi geratzen da (Valdenebra, 2001). Argitu beharra dago, jarduera espontaneoak funtsezkoak dela, aukera berriak sortzea eragozten duen edo bat-batekotasuna eragozten duen egitura duen edozein jarduera artistikok ez baitu lotura hori jolasarekin (Abad, 2006).

Hezkuntza ikuspegitik abiatuta jolas gertaera oro, esperientzia artistiko batera lotuta egon daiteke, baita bizitzarekin eta egunerokotasunetik bereizezinak diren esperientziekin lotura estua duen giza prozesu orori lotuta agertzen delako. (Abad, 2006)

Jolasak, horrela, arte-hezkuntza topaleku, parte-hartze eta inklusio-gune bihur dadin sustatu dezake, Prietoren hitzetan (2005), jarduera ludiko-sinbolikoa aprobetxatu behar da esperientzia artistikoa bizitza sozialaren eduki konplexuaz blaitzeko, motiboen, jokabide-jarraibideen, keinuen, jarrera sozialen eta abarren berri emanez.

Jolastea burua erabiltzeko modu bat da, eta, are gehiago, burua erabiltzeko moduari buruzko jarrera bat da. Probatzeko ikaskuntza-esparrua da, pentsamendua, hizkuntza eta irudimena konbinatu ahal izateko espazioa. Espazio aipatuta esan behar dugu, instalazioetan jolasa ematen dela, jolas sinboliko librea egiten da, zehazki.

2.4. INSTALAZIO ARTISTIKOA HEZKUNTZA-METODOLOGIA GISA HAUR HEZKUNTZAN

Instalazio artistikoen munduan sartu aurretik, autore batzuen definizioetan oinarrituz hauen esanahira hurbiltzea egokia iruditzen zait. Helburu horrekin, instalazio artistikoaren kontzeptua azalduko dut jarraian.

Abaden (2014) hitzetan, instalazioa arte garaikidearen adierazpen bat da, espazio sinboliko bat proposatzen du nahita sortutako ideia edo mezu bat irudikatzeko. Horretarako, lekuaren eta artistaren diskurtsoaren euskarri eta bitartekari diren objektuen baldintza bereziak artikulatzen dira. Ez da nahitaez eratzen ikusleak eraldatzeko, baina aukera eman behar du interpretazio eta interpelazio modu desberdinen bidez jokoan sartzeko.

Bestalde, Barzelek (2001) defendatzen du instalazioa ilusionismoaren espazio margotura irteteko bide bat dela eta modernismoaren funtsezko helburuetako bat praktikan jartzen duela, artea errealitatera eramatea, alegia.

Lemarroyk (2004) esaten digu instalazioa ez dela artelan osatu bat bihurtzen ikusleak parte hartzen duen arte. Artistek, konposizioaren parte gisa, ingurunea bera (hormak, zorua, argiak, etab.) eta bertan aurkitutako objektu ezberdinak erabiltzen dituzte. Askotan, aukeratutako materialek espazioa betetzen dute gutxi gorabehera, eta ikuslea gonbidatzen dute obraren inguruan mugitzera edo harekin elkarreraginean aritzera. Horrela,

ikuslea obraren parte da une zehatz horretan, eta horregatik instalazio bakoitza bakarra da eta harekin elkarreragiten duen pertsonaren mende dago.

Instalazioen kontzeptua argitu ondoren, historikoki kokatzea da hurrengo pausoa. Instalazio artistikoa 60ko hamarkadan sortu zen, beste adierazpen batzuekin batera, postmodernitateak ekarri zuen aldaketa politiko, sozial eta zientifikoaren ondorioz. Arte-esparrua berriz aztertzen da: jada ez da bilatzen elementuaren errepresentazio erreala, egia irudikatzea. Horrela, interpretazioa, anbiguitasuna, kontraesana eta emozioak modernismoaren berezko arrazionalismoaren aurretik jartzen dira. Artea museo eta galerietatik kanpo beste espazio batzuk bilatzen hasi zen, espezializatu gabeko publikoarengana hurbildu nahian eta artea erosi eta saltzen delako ideiarekin hausten duten jarrera antikapitalistak sustatuz (Díaz Obregón, 2003).

Haur Hezkuntzan, artearen fenomeno soziala erabil dezakegu balioetan oinarritutako hezkuntzari eta gatazkak konpontzeari ekiteko, haurrek beren berdinekin sozializatzen eta balio-sistema jakin bat barneratzen ikasten duten unean. Arnheimek (1999) dio artea sentimenduei zor zaiela eta sentimenduak transmititzen dituela, eta emozio horrek pizten duela kognizio-ekintza. Artea hitzekin adieraz ezin daitekeena adierazteko modu bat da, eta, beraz, geure sentimenduekin eta besteen sentimenduekin egiten dugu topo, emozioen eta sentipenen eragile gisa jarduten du, hau da, gure buruarekin konektatzen gaitu eta senti dezakegunaz jabetzen gara. (Fontal et al., 2015, 10. or.)

Esan bezala, besteak beste, esperientzia estetikoa aurkikuntzaren gogobetetzea, jabetzaren eta pertenezaren sentimendua, artean murgilduta daude, eta emozio eta sententzioen mundu bat pizten dute gudan.

Instalazio artistikoak hezkuntza-eremuarekin lotuz, Abadek (2008) aipatutako ezaugarrietako batzuk azaltzen ditu:

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da instalazioek aukera ematen dietela haurrei espazio bat sortzeko, non giza harremanek funtsezko zeregina betetzen duten, garatzen ari diren bitartean beraiek konpondu edota negoziatu behar dituzten gatazkak sor baitaitezke.

Normalean, haurrak instalazioko materialarekin banaka esperimentatzen hasten dira, eta bakoitzak bere espazioa sortzen du. Hala ere, instalazioa eraldatu ahala, konturatzen

dira beren espazioak gainerako haurrekin elkartzen direla eta orduan talde-lankidetzako lana hasten dela.

Instalazioetako beste elementu bereizgarri bat haurren bat-bateko jolasa da. Abadek (2008) azaltzen duen bezala, haurrentzat jolasa plazerra lortzeko modu bat da, eta horregatik aukera ematen die beraien urundu eta eraldatu nahi duten errealitatea, errealitateak inposatzen duena eta desatsegin zaiena, askatasunez sortzeko. Horrela, jolasak funtzio sinbolikoaren bidez komunikatzeko, adierazteko, sortzeko eta pentsatzeko aukera ematen die haurrei (Abad, 2008). Horren ondorioz, haurrak berak dira ikaskuntza-prozesuaren protagonistak, eta, instalazioa osatzen duten elementuekin esperimendatuz eta elkarreraginez, beren ikaskuntza esanguratsuak eraikitzen dituzte.

Azkenik, joko espontaneotik sortzen den «ordena-kaosa» ideia aipatu nahi nuke. Ideia horrek desorden ordenatu bati egiten dio erreferentzia, espazioa aldatzea eta eraldatzea ahalbidetzen duena. Instalazioak eta hura osatzen duten objektuak ordena-sistema batean aurkezten dira, espazioaren eraldaketa eragiteko moduan, eta haurrek joko librean muga batzuk daudela ulertzeko moduan. Kaosa baimentzeak esan nahi du aukera dagoela helduek sortu duten espazioa suntsitzeko eta haurrak berea egin ahal izateko (Abad, 2008).

3. HELBURUAK

- Haur Hezkuntzan arteak duen garrantzia ikusaraztea, batez ere arte-instalazioen lanketak dakartzan onurak frogatzea.
- Gaur egun HH-ko geletan dagoen material mota aztertzea eta horrekiko dauden gabeziak edo beharrak nola asetuz identifikatzea.
- Instalazio artistikoen aurrean irakasleek duten ezagutza ezagutzea eta aztertzea, baita eskolan baliabide berri bat zertarako erabili daitekeen erakustea.
- Jolas sinbolikoa eta jolas presinbolikoaren bitartez, haurren barne motibazioa piztea, motibazio intrinsekoa.

4. METODOA

4.1. DISEINUA ETA METODOLOGIA

Gradu amaierako lan hau aurrera eramateko modua esku-hartze bat izan da. Erabili den metodologia behaketazko ikerketa izan da. Horretarako, alde batetik, esku-hartzearen diseinua egin da, gelan dagoen materialaren azterketa egin ondoren. Eta bestetik, gauzatutako ikerketa era kualitatiboan egin izan da elkarriketen bidez, tutoreari eta kordinatzaileari esku-hartzea gauzatu aurretik eta ondoren egindako elkarriketak erabilgarriak egingo zaizkigulako, ondorio desberdin anitzetara iristeko.

4.2. PARTAIDEAK ETA TESTUINGURUA

Gauzatu den ikerketa lana, Irungo San Vicente De Paul ikastetxean aurrera eraman da 4 urteko 16 ikaslerekin batera. Horietatik 6 mutilak eta 10 neskak izanik. Horretaz gain, bertako tutorea, esku-hartzearen lekuko izan da, baita Haur Hezkuntzako kordinatzailea ere.

Bestalde, esku-hartzea aurrera eraman den ikastetxearen testuingurua hobeto ulertzeko, bertako datu esanguratsuenak argituko ditut. Hasteko, esan beharra dago, San Vicente de Paul ikastetxea itunpekoa eta kristaua dela. Erabiltzen den eredu linguistikoa, D eredukoa da. Hasieran, B ereduan hasi ziren lanean, baina duela urte batzuk, D eredura aldatzeko erabakia hartu zuten. Atzerriko hizkuntzei dagokienez, 4 urtetik aurrera ingeleseko klaseak ematen dituzte. Eredua ahal den heinean errespetatzen da, irakasle guztien partetik oso argi dago ikastetxean erabiltzen den eredua zein den eta une oro euskera erabiltzen da. Hala ere, euskaldun familien kopurua oso murrizta da, hortaz, azalpenak batzuetan gazteleraz errepikatzen dira ulermena bermatzeko. Edonola ere, material guztia euskeraz ematen zaie, bai ipuinak, bai fitxak, edo behar dena.

Taldearen izaerari dagokionez, nahiko gela urduria dela esango nuke. Mugitzeko premia handia dago, baina, aldi berean, muga argiak behar dituztela ikus daiteke. Beraz, mugimendu aukera eman behar zaie, betiere mugimendu kontrolatua bada. Muga eta arau

argiak dituzten jardueren bidez, besteak beste. Artearen inguruan lantzen duten alderdi bakarra, arte plastikoak dira. Haurren eskura plastilina, margoak, folioak, guraizeak eta kola daude besteak beste. Artea modu tradizionalan lantzen dute, abestien eta dantzen bitartez adibidez. Arte eszenikoak ez dira lantzen, baina hurrengo ikasturteetako batean ideia bikaina izango litzateke programazioan sartzea, antzerkiak haurrentzako onura izugarriak baititu.

4.3. ALDAGAIK ETA TRESNAK

Instalazioaren jarduerak irauten duen denboran zehar gertatutakoa dokumentatzeko helburuarekin, ondoren aztertzeko, hainbat tresna erabili ziren, hala nola, zuzeneko behaketa eta landa-oharrak. Aipatzekoa da behaketak ekintzaren ondorioak dokumentatzeko funtzioa duela, eta ondorengo hausnarketarako berehalako dokumentu-oinarria ematen duela; gainera, inguruabarrei egokitu behar zaie, eta irekia eta malgua izan behar du ustekabekoa erregistratzeko (Ruiz de Velasco eta Abad, 2016). Gainera, argazkien eta bideoen bidez ere ikusizko erregistroak egin ziren, eta, horiei esker, ekintzaren ondorengo analisi bat egin ahal izan zen. Gainera, tutorearen iritzia ezagutzeko, bi galdetegi prestatu ziren; bat esku-hartzea burutu baino lehen osatzeko eta beste bat jarduera burutu ondoren erantzuteko. Hona hemen galdetegiak osatzen dituzten galdera sortak:

JARDUERA EGIN BAINO LEHENAGOKO GALDETEGIA

- 1. Zer esan zenezake instalazio artistikoei buruz? Inoiz entzun duzu kontzeptu hau? Horrela bada zein kontestutan?**
- 2. Espazio mota honetaz gain, beste motatako espazio sensorialekin edo hezkuntza-giroekin lan egin duzu (argi-mahaiak, gela sentsoriala...)?**
- 3. Zure ustez instalazio artistiko batean erreferentziazko helduak parte hartzeak ekintza erraztu edo zapuztuko du?**

4. Urteak joan ahala eskoletan dauden materialak asko aldatu direla uste duzu? Orain arte lanean egon zaren ikastetxeetan zein material motarekin egin duzu topo? Zerk harritu zaitu gehien?
5. Zein da zure iritzia material desegituratuen inguruan? Horrelakoak erabiltzen direla pentsatzen duzu? (Material desegituratua: Funtzio bakar edo espezifikorik ez duen jolas-elementua da, haurrak nahi duena edo imajinatzen duena izan daitekeena. Ez du jarraibide zehatzik, bere funtzionaltasuna erabiltzen duenak ematen dio. Adibidez, egurrezko makila batzuk, harri batzuk edo harea, guztiak egitura zehatzik edo itxirik gabeko materialak dira, joko librea bultzatzen dutenak.)
6. Helduok orokorrean, haurrek jolasteko erabiltzen dituzten materialei garrantzia ematen diogula pentsatzen duzu?
7. Badakigu jokabide jakin batzuk aztertzea zaila dela egunerokotasunean, askotan ez baitugu horretarako denbora fisikorik; baina, noizbait gelditu al zara haur baten jolasari erreparatzen eta arretaz aztertu duzu? Zein ondorio atera duzu behaketa horretatik?
8. Zure ustez, zergatik daude hain lotuta jolasaren ekintza eta haurrak harremantzeko duten gaitasuna?
9. Hezkuntza mailan gure herrialdeak hobekuntza, edo berrikuntzak behar dituela uste duzu?
10. Nola ikusten duzu etorkizuna? Haurrak hezteko modua aldatuko dela pentsatzen duzu? Bai eskoletan bai etxeetan?

JARDUERA EGIN ETA ONDORENGO GALDETEGIA

1. Jakinda lehen aldia zela instalazio artistikoaren kontzeptuari buruz hitz egiten entzuten zenuena, lehen aldiz bat ikusi ondoren, zein izan da zure lehen inpresioa?
2. Esan zenidanez, zentzumenei loturiko ekintza eta jarduera ezberdinak ikusteko aukera izan duzu. Hortaz, zein ezberdintasun aurkitu dituzu bestelako hezkuntza-giroen eta instalazio artistikoaren artean? Azken honek beste batzuek ez bezalako onurak eskain diezazkigukeela uste duzu?
3. Jarduera zuzendu gabea izan zen, erreferentziazko helduak ez zuen parte hartu. Honek, hasieran behintzat, haurrak galduak sentitzea dakarrela uste duzu? Orokorrean haur txikiak gidatzeko ohitura dagoela pentsatzen duzu? Jarduera berri baten aurrean aurkitzen diren bakoitzean guk gidatzea espero dutela uste duzu?
4. Zer iruditu zitzaizun instalazioan erabilitako materiala? Hobeto funtzionatzen duen beste material baten truke aldatuko zenuke baten bat? Ideia guztiak ongi etorriak dira.
5. Zein material desegituratu gustatu zitzaizun gehien? Zure iritziz, zein izan zen jolas gehien eman zuena?
6. Jarduera aurrera eramaten zen bitartean, arreta deitzen zizun jolas bereziren bat ikusi zenuen?
7. Haurren arteko harremanen bat deitu zuen zure arreta? Beraien arteko elkarrizketaren bat agian? (Instalazioetan, musikariek ez jartzea gomendatzen da, izan ere, jokoaren soinua bera (haurren elkarrizketak eta soinua adibidez) ez litzateke hautemango, eta instalazioek duten aberastasunetako bat da.)
8. Euskal Herriko eskoletan horrelako dinamikak egunerokotasunean sartzeko aukera dagoela uste duzu? Edo baliabideak faltan ditugula pentsatzen duzu?

9. Behar bezalako baliabide eta laguntzarekin, instalazio artistiko bat aurrera eramatera animatuko zinake?

10. Jarduera honen inguruan onura baten bat nabarmenduko zenuke?

Ondoren, landa-oharrak jasotzeko fitxa bat sortu nuen. Bertan ordua, erregistroa eta komentarioak idazteko atalak sortu ditut. Garrantzitsua da unean bertan gertatzen ari denaren erregistro zehatza egitea, momentuan bertan ikusten ditugun jarrera, elkarrizketa edo xehetasunak ez ditugulako gogoratuko lana egiterako orduan. Ikusi [III. eranskina](#) informazio horren berri izateko.

4.4. ESKU-HARTZEAREN PROZEDURA ETA DISEINUAREN AZALPENA

Esku-hartzearen prozedura nahiko luzea eta zaila izan da. Esku-hartze bat diseinatzerako orduan partaideak nortzuk izango diren izan behar da kontuan eta aukera balego, partaideak ikertzea oso onuragarria da esku-hartzea partaideentzat aproposa izateko. Nire diseinuaren kasuan eraldaketa ugari egon dira, lehenengo proposamenetik aurrera eraman denaren diseinua lortu arte. Prozesu honetarako ezinbestekoak izan dira mota ezberdinetako ikerketak, entzuketak eta azterketak ikasleen beharrak asetzearen helburuarekin diseinua eraikitzeke.

Jarraian, diseinuaren azalpena aurkeztuko da.

4.4.1. SARRERA

Instalazioaren helburua hurrengoa da: haurrak material ezberdinak manipulatzeko inongo jarraibiderik izan gabe. Instalazioa jolasa baldintzatzen edo mugatzen ez duen materialez osatuta dago horretarako. Beti ere beraien irudimena lantzeko baliabideak bilatzen dira, beraien jolas propioa ez baldintzatzeko edo mozteko.

Instalazio hau hondartzan inspiratuta dago, bi eremutan zatituta egongo da, bata harearen errepresentazioa, eta bestea itsasoarena. Materialari dagokionez, harearen aldean, maskorrak, hondarrez betetako kartoizko kutxak eta hondartzan aurkitutako landareak egongo dira. Itsasoaren aldean, urez betetako kutxa gardenak (ura elikadura-koloratzaileekin urdinez tintatuta egongo da), artilezko harilkoak, eta zinta urdina izango dira erabilitako materialak. Harearen eremua, tonu marroi argietaz egongo da osatuta, itsasoarena aldiz, urdin tonu ezberdinetaz.

Materialen kokapena hurrengo izango da: ezkerreko aldean hondarraren eremua izango da, erdialdean kartoizko sei kutxa egongo dira kokatuak, hondartzako hareaz beteta; inguruan maskorrak egongo dira; eremua hondartzako landareekin mugatuta egongo da. Eskuineko aldean itsasoaren eremua izango da, eremuaren izkina bakoitzean plastiko gardenezko kutxa bat jarriko da (4 guztira), kutxak urez beteta egongo dira, ura elikadura-koloreekin urdinez tintatuta egongo da; eremuaren erdialdean artilezko lau haril egongo dira, bakoitza kolore batekoa (urdin iluna, urdin argia, urdin neutroa eta berdea).

Instalazioetan oso aberasgarria da jolasaren intentsitatea jeisten denean, material berria sartzeari jolasa berpizteko eta irudimenari baliabide gehiago emateko. Material berria sartzeko modua garrantzitsua da, materiala edozein modutan sartzen badugu ez du inpaktu berdina sortuko. Material berri bat sartzeari batera, ekintza bat asmatzea da proposena, modu honetan material hori sartzeari zentzua hartuko du. Nire kasuan, pintxo-zotzak sartuko ditut. Horretarako, zotz multzo bat hartuko dut esku artean eta igurtzen sartuko naiz barnera, egurraren igurtzapenaz eginiko soinua erakutsiz. Modu honetan, haurren arreta erakarriko dut..

4.4.2. MATERIALAK

- HASIERATIK IPINITAKO MATERIALAK:
 - Hondartzan aurkitutako landareak
 - Maskorrak
 - Hondarra
 - Kartoizko kutxak

- Plastiko gardeneko kutxak
 - Elikadura-koloreekin tintatutako ura
 - Artilezko harila
 - Zinta urdina
 - Plastikozko edalontziak
- GEROAGO SARTUKO DITUGUN ELEMENTUAK:
 - Pintxo-zotzak

Material hau erabiltzearen zergatia

Instalazio honetarako material ezberdinetako elementuak erabili dira, jatorri ezberdinetakoak. Batetik elementu eta material naturalak egon dira, maskorrak, ura eta hondarra besteak beste. Material gehienak naturalak izan daitezzen saiatu naiz, modu honetan ekoizpen artifiziala ez dugu bultzatzen eta aldi berean natura hurbiltzen diegu haurrei. Bestetik, material artifizialak ere erabili dira proposamen hau gauzatzeko, hala nola, plastikoa. Argi dago material honek ez duela ingurumena errespetatzen eta planetaren osasunerako kaltegarria dela; hala ere, material hau aukeratu izanaren arrazoia, beste erabilera bat ematea izan da, lehendik ekoiztuak izan diren elementuak dira, beraz, instalazio hau aurrera eramateak ez du plastiko-ekoizpen gehiago sortu; aitzitik, lehendik erabilitako elementu horiek berrerabili ditugu beste erabilgarritasun bat emanez, hau da, lehen erabilpenean zuzenean zakarrera bota ordez, bigarren bizi-tza bat eman diogu. Material ezberdinen berrerabilpena sustatzen duten instalazioak proposatzea egokia eta beharrezkoa da Haur Hezkuntzatik birziklapena eta plastikoaren berrerabilpena bultzatzeko.

Materialen koloreek garrantzi handia dute, bi kolore gama erabili dira. Batetik, beix tonuak hondarraren gunea errepresentatzeko eta urdin tonuak itsasoa errepresentatzeko. Materialaren aukeraketa ere hauen arteko konbinazioan oinarritu da. Oso garrantzitsua da erraz konbinatu daitezkeen materialak aukeratzea, ahalik eta konbinazio gehien lortzea bilatu behar dugu. Badaude materialak beraien artean konbinatzerako orduan jokurik ez dutenak ematen eta beste batzuk milaka aukera dituztenak elkartzean. Hortaz, materialaren funtzioa aztertu ordez, gainontzeko materialekin edukiko duen erlazioa kontuan hartu behar dugu.

4.4.3. MATERIALAREKIKO HELBURUAK

- Material guztien ezaugarriak behatzea (forma, kolorea, testura, igortzen duten soinua ukitzerakoan...), ukimenaren bidez, materialen arteko konbinazio posibleak aztertzeke eta aurreikusteko.
- Ekoizpen artistiko ezberdinak sortzea eskaintzen diren materialak elkartuz, materialen forma aldakortasuna eta itzulgarritasuna aztertzeke.
- Eskaintzen diren materialez baliatuz, haurrek instalazio horretan sentitzen dutena azalratzea ekoizpen artistiko baten bidez, edota mugimendu ezberdinak burutuz materialen laguntzarekin.

4.4.4. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

<u>BAI EZ OHARRAK</u>
Instalazioarekiko interesa eta motibazioa erakusten du.
Espazioa eta materialak modu sortzailean aztertzen ditu.
Haur gehiagorekin jolasten du.
Ekintzaren eta mugimenduaren bidez eta materialarekin mugimendu eta ekintza hau konbinatuz bere gorputza jolasteko erabiltzen du.
Sailkapenak egiten ditu edota materialen arteko erlazioak ezartzen ditu.
Ikaskideak errespetatzen ditu.

5. DIAGNOSIA

5.1. AURREIKUSPENAK

Esku-hartzea egin baino lehen, informazio ezberdinetaz elikatzen hasi nintzen. Lehenik eta behin, protagonisten gelara joan nintzen eta bertan behaketa gauzatu nuen. Batez ere, materiala aztertu nuen: haurrak egunerokotasunean erabiltzen dituzten jostailuak, horien material mota, funtzionaltasuna, baita gelan dituzten bestelako objektuak ere. Gehienak material egituratuak ziren, hau da, helburu ludiko zehatza dutenak. Batzuk, jarraibideak dituzte, beste batzuek, berriz, ez dute arau argirik, baina joko imitatibo edo literal batera mugatzen dira, jostailuzko sukaldea edo autoak adibidez. Material hauek normalean ez dute sormena garatzen laguntzen. Hau guztia kontuan hartuz, hasieran galduta sentituko direla pentsatzen dut, beraientzat material berriak dira eta. Hala ere, denbora aurrera joan ahala, jolas berriak agertuko direla aurreikusten dut.

Bestalde, esku-hartzea gauzatu baino lehen, galdetegi bat prestatu nuen gelako tutoreari egiteko. Galdetegi honen helburua, tutorearen iritzia eta gai honen inguruko jakituria eta pentsamoldea ezagutzeko zen. Tutorearen erantzunak irakurri eta gero, gelan horrelako ekintzak ez dituztela egiten ondorioztatu dut. Beraz, imajinatzen dut haurren emozioak biziagoak izango direla eta urduriago baita zirrara handiagoarekin egongo direla. Aldi berean, tutoreak aurrera eramango den jardueraz asko disfrutatuko duela pentsatzen dut, horrelako proposamenak gustuko dituelako eta baliabide berriak ezagutzeko beti prest dagoelako.

Atal honekin bukatzeko, esan beharra daukat jarduera hau aurrera eramatea espero dudala. Ez dut espero ez ondo ez gaizki ateratzea, horrelako jardueretan gertatuko dena ezin dugulako inoiz jakin. Zerbait aurreikusten genuen moduan ez bada ateratzen, aurrera jarraitu behar dugu egoera berria interpretatzen eta ulertzen ikasiz baita horretara moldatuz ere.

5.2. EMAITZAK

Puntu honetan, nire ikerketa prozesuan zehar eskuratutako ezagutzak eta behaketak islatuko dira. Informazio hau nagusiki lau informazio iturrietatik eskuratu dut: ikasgelaren behaketaren bidez, fakultateko aditu baten aholkuen bidez, tutoreari egin nizkion galdetegiaren bidez eta instalazioaren jardueran dokumentatutakoaren bidez.

5.2.1. EGUNEROKO ESPAZIOAREN BEHAKETA

Hasteko, ikasgelaren behaketan arreta jarriko dugu. Tamainaz, espazio aproposa da 16 haurrentzako, jarduera batzuetarako tamaina justu samarra izan daiteke, baina egunerokorako ez dago gaizki. Gela itxuraz, oso klasikoa da, izan ere, ikastetxea ireki zeneko gela berdinak mantentzen dira, ez dituzte inoiz eraldatu. Materialaren gaian sartuz, gela bezala materiala ere nahiko klasikoa dela esan beharra dago. Txokotan dago gela bananduta, lehenengoa, arteei eskainitako txokoa da, bertan plastilina, margoak eta tenperak dituzte. Hurrengoa, eraikuntzetara bideratuta dago, egurrezko piezak, puzzleak, plastikozko autoak eta gomazko animaliak aurkitu nituen bertan. Hirugarren txokoa, fitxak egiteko espazioa da, bertan soilik margoak eta rotulkiak daude fitxak bete ahal izateko. Bukatzeko, etxetxoaren txokoa behatu nuen, txoko hau haurren tamainaren egurrezko etxe handi bat da. Txoko hau zaintzara bideratutako espazioa da, material ezbedinak daude barruan, panpinak, kuxinak, haur-aulkiak eta sukaldatzeko tresnak besteak beste. Hau da gelan dagoen materiala, aurretik aipatutakoaz gain, arbela bat dago asanbladak egiten dituzten gunean.

5.2.2. FAKULTATEKO ADITUAREN AHOLKUAK

Azpi atal hau sortzea guztiz beharrezkoa ikusi dut, fakultateko irakasle honek esandakoak garrantzi handia izan baitu nire prozesu guztian zehar eta gaiaren aukeraketan ere. Ainhoa Gómez Pintado izena du, Hezkuntza Artistikoan aditua da, eta “Dramatizazioaren bidezko Adierazpena eta Komunikazioa” minorrean nire arte irakaslea izan zen. Betidanik izan dut interes handia arte alderdi ezberdinetan. Hala ere, “Hizkuntza

Plastikoa eta Ikusizkoa” ikasgaiaren hasierara arte ez nuen Hezkuntza Artistikoa ezagutu, gai honekiko nire motibazio handia hasi zenean. Gelan eskuratutako ezagutzak, nire arreta guztia bereganatu zuten. Gainera, kurtsuan zehar aurrera eramandako proiektuen bidez, intriga eta erakarpen handia sentitzen hasi nintzen metodologia artistikoekiko. Minorrean bizitako esperientzia inspiratzaileari esker, nire Grala instalazio artistikoen lanketaren inguruan egitea egin nahi nuela erabaki nuen. Gai hau sakontasunez lantzea zeregin zaila izango zela banekien, baina hain zen handia nuen motibazioa, horren alde egitea erabaki nuela. Instalazio artistiko bat sortu eta prozesu osoa gauzatu nahi nuen nire kabuz, horrek suposatzen zuen erronka handia gaindituz. Hona iritsi arte bide luzea eta korapilatsua izan da, gorabehera handikoa. Bide horretan ezinbestekoa izan da Ainhoaren aholkularitza gaur egun proiektuaren bertsiorik onena aurkeztu ahal izateko.

Instalazioaren lehenengo bertsioa sortzea zaila egin zitzaidan, askotan galduta sentitzen nintzelako eta ez nuelako beharrezko segurtasuna nigan, horregatik erabaki nuen Ainhoarengana jotzea aholku eta inspirazio bila. Bulegora iristerakoan nire motibazioa nahiko gainbeheratua zegoen jada, baina Ainhoarekin hitz egin ondoren, indarberiturik nengoen. Proiektua guztiz aldatzea erabaki nuen bere aholkuak entzun ondoren. Banekien horrek data guztiak atzeratzea ekarriko zuela, baina nahiago nuen ikertzen eta ikasten jarraitzea eta prozesuaz gehiago gozatzea. Adu baten hitzak entzutea oso pribilegio erabilgarria eta aberasgarria da gai bati buruz ikasten ari zarenean. Ainhoak, artearekiko duen grina ikasleei helaraztea eta modu motibazional eta interesgarrian irakastea lortzen du. Berak beti esaten zigun ideiak birpentsatu behar direla, ekintzen zergatiak birplanteatu behar direla, ahal diren frogak guztiak egin behar direla eta gure produkzioekin jolastu behar dugula gure bertsiorik onena eman ahal izateko.

5.2.3. ESKOLAKO TUTOREAREN ADIERAZPENAK

Tutorearen begiradan zentratuko gara orain. Galdetegi bidez lortutako adierazpenak islatuko dira jarraian. Bi galdera-sorta prestatu nituen gelako tutoreari egiteko, bat jarduera egin baino lehen betetzeko eta bestea esku-hartzea egin eta ondoren osatzeko. Galdetegi hauen helburu orokorra, instalazio artistikoen inguruko tutorearen ezagutza mailaren berri izatea da. Galdetegi hauei esker atera nituen emaitzak hurrengoak dira: ekintza egin aurretik kontzeptua ez zuen ezagutzen, hala ere, izugarritzko interesa zuen

ikusteko eta ikasteko. Ekintza gauzatu ondoren, haurrak oso gustora ikusi zituela esan zidan eta bera ere horrelako bat egitera animatuko litzatekeela ere. Bestalde, helduon parte hartzea mugatua izan beharko litzatekeela argi zeukala adierazi zidan bai egin baino lehenagoko galdetegian bai ondorengoan ere. Orokorrean gai ezezaguna zen berarentzat baina interes handia izan zuen prozesu guztian zehar. Bere hitzetan, baliabide eta hezitzaile faltak, haur-hezkuntzako gela batean bizitzen diren egun frenetikoekin batera, zaildu egiten dute horrelako jarduerak egitea.

5.2.4. INSTALAZIOAREN KONTAKIZUNA

Azkenik, instalazioaren jardueran dokumentatutakoaren azalpena izango duzue jarraian. Instalazioa dokumentatzea oso lagungarria egin zitzaidan esku-hartzea gauzatu ondoren xehetasun guztiak birgogoratzeko. Dokumentazioa bi modutan egin zen, batetik digitalki, argazkien eta bideoen bitartez, eta bestetik, fitxa baten bitartez, landa-oharrak hartuz. Dokumentazioa digitala behin baino gehiagotan aztertu dut, informazio izugarria dagoelako honetan eta beti xehetasun berri batean erreparatzen dudalako. Landa-oharren fitxa bideoak ikusiz osatzen joan naiz, momentuan hartutako oharrak oso azalekoak ziren eta informazio gehiagorekin osatzen joan naiz.

Instalazioa hasterakoan, haurrak harrituak zeuden baina jakin-min handiaz ere. Horrelako jarduera batean zeuden lehenengo aldia zela igartzen zen, emozio handia zuten. Konfidantza hartu zutenetik energia goraka zihoan, baita instalazioan zuten murgilpena ere. Denboraren erdia igaro ondoren, arretaren erdigunea aldatu eta sakabanatzen hasi zen, giroan sortutako energia lasaia desagertu egin zen eta distrakzio berriak agertu ziren. Nire arreta deitu zuen zerbait ohikoak ez bezalako harreman-loturak nola sortzen ziren ikustea izan zen. Bestetik, izatez oso urduriak diren haur batzuk, beraiek egitea erabaki duten ekintza batean zentratzen ikusi ditut. Jolasari dagokionez, trasbaseak haurrek gogokoen eta gehien ikusi zen ariketetako bat izan zen, objektu eta forma desberdinetan. Bestalde jolas sinboliko asko ikusi nuen ere haur desberdinen partetik. Azken batean, denok oso tarte atsegina igaro genuen, eta oso harmonia polita eta lasaia sortu zen.

5.3. ONDORIOAK ETA HAUSNARKETA

Atal honetan, emaitzen balorazio orokor bat egingo da marko teorikoan agertzen diren puntu desberdinak kontuan hartuz eta beraz, erlazio desberdinak sortuz.

Hasteko, helburuen betetze mailaren inguruan arituko gara. Horretarako, lana burutzeko erabili ditugun tresna guztiei esker lortutako emaitzak azaltzeko ezarritako helburuak hartuko dira kontuan.

Lehenengo helburua “Haur Hezkuntzan arteak duen garrantzia ikusaraztea” izanik, emaitza desberdinak lortu ditut. Lorpen orokor bezala, nire esku-hartzeak lehenengo adinean artea oso presente egon behar dela egiaztatzea lortu duela esango nuke. Lehenik eta behin, materialen kokapena, kolore-konbinazio, eta instalazioaren bisualizazio orokorrerako artea guztiz beharrezkoa dela argi geratu da. Bigarrenik, artea, jolasa eta esplorazioa batera doazela begi bistan geratu da. Jarraitzeko, hirugarren lorpen moduan material motak duen garrantzia aipatuko nuke, materialen testurak, koloreak, tamainak, erabilpena etab. kontuan hartuz. Amaitzeko, aipatu behar da arteak garrantzi handia izan duela instalazioaren inspirazioari dagokionez. Ez dira aukeratutako eta ausaz jarritako materialak, baizik eta hondartza baten itxura imitatzen saiatzen direnak, itsasoaren eta hondarraren zatia irudikatuz, hain zuzen ere.

Beste alde batetik, aurreko puntu batean zehaztutako bigarren helburua kontuan hartzen badugu, “Gaur egun HHko geletan dagoen material mota aztertzea eta horrekiko dauden gabeziak edo beharrak nola asetu detektatzea” dela ziurtatu dezakegu eta hurrengo lerroetan helburua behar bezala bete dela egiaztatu dezakegu. Helburu hau lortzeko, batez ere bi eginkizun burutu ditut. Batetik, haurren gelara joatea eta beraien egunerokotasunean erabiltzen duten materiala aztertzea. Eta bestetik, galdetegien bidez, gai honen inguruko tutorearen iritzia ezagutzea. Ikerketa hauen emaitza, material manipulatio eskasa dutela izan da. Batez ere, material egituratu asko ikusi dut eta desegituratuaren falta nabaritu dut.

Aipatutakoaz gain, tresnen atalean ikusi dezakegun moduan, gelako tutoreari galdetegi bat luzatu zitzaion. Galdera hauek hirugarren helburuari erantzuna emateko asmoz egituratu ditut, “Instalazio artistikoen aurrean irakasleek duten ezagutza ikertzea eta ezagutzea, baita eskolan baliabide berri bat zertarako erabiltzen den erakustea”, hain zuzen

ere. Galdetegiaren erantzunak ikertu ondoren, oro har Euskal Herriko ikastetxeetan oraindik gutxi lantzen den gaia dela argi geratu da. Instalazio artistikoen inguruan ez dago formazio askorik; izan ere, ez da kontzeptu bereziki ezaguna hezkuntza munduan. Galdetegi hauen bitartez, baliabide honekiko tutoreak zuen interesa hauteman nuen. Batez ere jarduera egin eta ondorengo galdetegian, haurrak oso gustora eta materialarekiko jakin minaz egon zirela ikusita. Nire ustez, baliabide berri hau geletan txertatzeak onura asko ekarriko lukeela frogatuta geratu zen. Haurren irudimena askoz garatuagoa ikusi nuen, haien alderik artistikoena bezainbat. Honez gain, haur askorengan ikusi daitekeen ezinegona baretuta ikusi genezake, batez ere jardueraren hasieran.

Helburuen betetze-mailaren berrikusketa motibazioaren inguruan hitz eginez itxi dezakegu. Horretarako, kasu honetan, aurretik zehaztutako laugarren helburuaz arituko gara, "Jolas sinbolikoa eta jolas presinbolikoaren bitartez, haurren barne motibazioa piztea, motibazio intrinsekoa." Kasu honetan, motibazioaren gakoa jolas sinbolikoa izan ordez, materiala bera izan dela egiaztatu dut. Eraitza hauek ateratzeko guztiz beharrezkoak izan dira bai jarduera egin bitartean ateratako multimedia frogak, baita jasotako landa-oharrak ere. Bi tresna hauen bitartez ateratako informazioa aztertu ondoren, haurren barne motibazioa piztea lortu nuela esango nuke. Haietako asko beren buruentzat lanean ikusi nituen, plazer hutsagatik; beraiantzat deskubritu, arakatu eta sortzeko nahi izateko barne-motibazioagatik. Beste batzuek gure begirada eta onespina bilatuz egiten zituzten ekintzak, hala ere, motibazioa intrinsekoa edo estrinsekoa izanda ere, motibazio erreala zen. Hortaz, esango nuke helburu hau aise bete dela. Bukatzeko, jolas sinboliko eta presinbolikoak oso presente egon direla gehitzea gustatuko litzaidake.; agertu den unetik pil-pilean egon den jolas mota izan da.

Aurretik aipatu ditugun helburuen betetze-mailaren lorpenak ondo aztertu eta hausnartu ondoren, hurrengo ondorioak atera ditut nire ikerkuntza lan honetan.

Ataza honekin hasteko, Haur Hezkuntzan arteari ematen zaion garrantzia baloratuko dugu. Honen inguruan ateratako eraitza, lehenengo haurtzaroan artea oso presente dagoela esango nuke, hala ere, ez zaio eman beharreko garrantzia ematen. Betidanik, artea Haur Hezkuntzan ez da seriotasunez hartu; urte askotan zehar, artea eskularen arloan soilik aurkitu dezakegula pentsatu ohi da. Artea gai serio bat bezala aintzakotzat hartzen hasten da soilik helduarotik aurrera, adibidez, margolanetan, diseinuan, museotan, gure etxebizitza apaintzerakoan, etb. Nire esku-hartzearen bidez, ikusgai geratu da artea jaiotzetik kontuan hartu behar dugula. Nire instalazioa bi kolore gamen inguruan garatu da soilik, urdinean eta

beigean. Pertsona askorentzat proposamen hau oso gatzgabea izango da, askotan haurrentzat dena, milaka kolore bizietaz betetzen baita.

Dolores Guerrero Cruzen (1996) hitzetan, artea funtsezko elementua da guztion bizitzan. Bere artearen bidez, gizarteari eskatzen dio bere burua ulertzeko, arazoei, jarrerai eta jokabide-moduei aurre egiteko eta, azkenik, eraldatzeko erronka onartzeko. Instalazioak bizitzaren isla dira. Hauetan bizitzan aurkituko dituzten erronkei aurre egiteko harramintak eskuratuko dituzte. Gainera, jokabideen inguruan ikasiko dute. Adibidez, Adayk artileari hainbeste buelta ematen dionean, jokabide horri buruz ikasten du, askatu ezin dela ikusten baitu. Ikasketa hori bizitza arruntara eramango du, eta jokabide batek berak nahi edo espero zuenera eraman ez duela ikusten duenean, bertatik ateratzen saiatuko da eta ez du patroia errepikatuko.

Gainera, Vigotsky (2005) dionez, mendeetan zehar, artea gizartearen bide lagun izan da, gizakion pentsaera, ikuskera eta sentipenak azaleratzeko baliabidea izan dugu betidanik. Horregatik nire xedea, eremu emozionalki segurua osatzea zen; instalazio artistiko honetan, beharrezkoa izanez gero, haurren pentsaera, ikuskera eta sentipenen azaleratzea gertatzeko. Honez gain, Arteak gainera ikaskuntza sendoagoak lortzen laguntzen digu. Hezkuntza artistikoan ikaskuntza emozionala ematen da, esperientziak eta ikerketak erakutsi dutenez, informazioa sendoago, irmoago eta luzeago gogoratzea dakar, kutsu emozionalez blaituta baitago (Vigotsky, 2005). Esku-hartzea burutu ondoren, ikasketa esanguratsu ugari eman direla esan dezaket. Haurrek ikasketa propioak egin dituzte, hezkuntza artistikoaren bidezkoak, esperientzia eta bere ikerkuntza propioaren bidezkoak. Nire jarduerak hori lortzeak asko harrotzen nau egia esanda, asko pozten nau haurrak onurak ateratzea eta jardueraz aberastea.

Ondorioen puntua osatzen jarraitzeko, gaur egun Haur Hezkuntzako ikasgeletan aurki dezakegun materialaz arituko gara. Nire ikerketaren bitartez materialaren inguruan informazio nahikoa bildu dut. Hasteko, bi material mota bereiztea gustatuko litzaidake: batetik material desegituratua, eta bestetik, material egituratua. Material egituratuak asko mugatzen du jolasa, gehienetan bideratutako funtziorako erabiltzen baitira soilik. Material horiek ez dute biderik ematen manipulatzeko ari diren objektua beste objektu bat dela irudikatzen. Material mota hauek adibidez, jostailuzko autoa edo jostailuzko sukaldea izan daitezke besteak beste. Haurren garapen kognitibo eta funtzionalerako material desegituratuak komeni zaizkigu gehiago. Hauen adibide, egurrezko makilak, harriak, harea,

kartoizko kutxak, edo artilea ditugu; hau da, egitura zehatz edo itxia ez duten materialak.

Gaur egun, material egituratuak askok nahiko genukeena baino gehiago erabiltzen dira, eta zoritxarrez, haur-hezkuntzako ikasgela batean ohikoagoa da material egituratua aurkitzea, desegituratua baino. Adibidez, jolas sinbolikoaren gunea ia beti material egituratuz beteta egongo da, hala nola, sukaldeak, sukaldeko tresnak, plastikozko janaria, jostailuzko haurtxoak, panpinentzako orgak eta sehaskak... Hala ere, eraikuntza esparruan batez ere, material desegituratua aurkitzea geroz eta arruntagoa dela esan dezakegu.

Jarduera honen bitartez, atera dudan ondorioz nabarmenatarikoa, honako hau da: haur guztiek dute sormena haien barnean, batzuek errazago azaleratzen dute eta beste batzuek, berriz, ez hainbeste. Hala ere, egoera apropos bat eratzen badugu eta material egokiak, era egoki batean kokatzen baditugu, beren irudimena asko handituko dela nabarrituko dugu. Izan ere, sormena eta berezotasuna behar bezala estimulatu beharreko ezaugarriak dira, ahalik eta horien garapen handiena aprobetxa dezagun.

Bestalde, material naturalak erabiltzea oso komenigarria da ere, batetik, ingurumenaren eta iraunkortasunaren aldetik, argi eta garbi aproposagoak direlako, eta, bestetik, haurrek inguruan dugun munduarekin izango duten hurbiltasunarengatik, naturarekin konektatuagoak egongo direlako. Nire kasuan, ahalik eta material natural gehien erabiltzen saiatu nintzen arren, material naturalez zein artifizialez hornitu behar izan nintzen. Hala ere, material naturalen kopurua, artifizialena baino askoz handiagoa zen. Material naturalak, hondartzako landareak, zinta urdina, kartoizko kutxak, hondarra, artilezko harilkoa, maskorrak, elikadura-koloratzaileak eta moruno pintxo-zotzak izan dira. Berriz, material artifizialak, plastikozko edalontziak eta plastiko gardenezko kutxak izan dira.

Instalazioen inguruan ondorioztatzen jarraitzeko, instalazio artistikoen aurrean irakasleek duten ezagutza hartuko dugu kontuan. Atal hau aztertzeko, guztiz beharrezkoa izan da gelako tutoreari egindako bi galdetegiak. Zalantzarik gabe, ateratako ondorioz garrantzitsuena zein larriena, gai honen inguruan dagoen informazio eza da.

Horrelako gaien inguruan desinformazio handia dagoela abiapuntutzat hartuta, hezitzaile askok gauza berriak ikasteko eta txertatzeko gogoia dute halaber. Jende askok hezkuntza berritu nahi du, eta egungo gizartera eta teknologiarik esker ditugun baliabide guztietara moldatu beharko genukeela pentsatzen dute. Baina nahiz eta, zenbait alderditan,

berritzen eta klasera gauza berriak ekartzen saiatzen garen, duela urte asko ematen ziren ohitura berberak mantentzen jarraitzen ditugu. Hauen arazoa, hezkuntza berritzeko eta aldatzeko proposamen berriek, horrelako errutinetan ez dutela lekurik da.

Instalazio artistikoak haurrentzat onuragarriak direla egiaztatu dugu eta oso interesgarria izango litzatekeela ikasturteko programazioan sartzea. Hala ere, unea iristean, ez dira inoiz sartzen, bat ez datozelako gainerako programazioarekin, denbora larriegia delako, baliabideak ez direlako nahikoak, gure eskura dauden instalazioak ez direlako aproposak, edo, besterik gabe, beste helburu batzuk bete behar direlako eta gaitasun batzuk modu tradizionalago batean betetzea eskatzen digutelako. Horrela, ideiak erakarri arren, ideia hori burutzeak oztopo asko dakartza beti berarekin. Hau guztiagatik ondorio bezala ateratu dut aldaketarako prest dauden hezitzaile asko egon arren, proposamen berriak integratzeak neke eta traba handiak dakartzala eta honek eguneroko motibazioa agortzen du.

Ondorioen atalarekin bukatzeko, jolas sinbolikoak instalazioetan jokatzeko duen paperaz arituko gara. Baita haurren motibazioaz ere.

Hasteko, instalazioa jolas sinbolikoa gauzatzeko jarduera ezinhobea dela egiaztatu dudala esan beharra daukat. Izan ere, Javier Abaden (2014) hitzetan, instalazioa arte garaikidearen adierazpen bat da, espazio sinboliko bat proposatzen du nahita sortutako ideia edo mezu bat irudikatzen. Gainera, aukera eman behar du interpretazio eta interpelazio modu desberdinen bidez jokoa sartzeko. Horregatik guztiagatik, instalazio batean jolas sinbolikorik ez egotea ia ezinezkoa da. Honetaz gain, Amnon Barzelek (2001) zioenez, instalazioek modernismoaren funtsezko helburuetako bat gauzatzen dute, artea errealitatera eramatea hain zuzen ere. Hortik, haurrak manipulatu duten materiala beraien egunerokotasunarekin lotzea eta jolas sinbolikoa ematea.

Motibazioari dagokionez, esan beharra dago, emozioak zein motibazioa oso garrantzitsuak direla eta biak oso lotuta daudela. Arnheimek (1999) dio artea sentimenduei zor zaiela eta sentimenduak transmititzen dituela, eta emozio horrek pizten duela kognizio-ekintza. Artea hitzekin adieraz ezin daitekeena adierazteko modu bat da, eta, beraz, geure sentimenduekin eta besteen sentimenduekin egiten dugu topo, emozioen eta sentipenen eragile gisa jarduten du, eta, beraz, gure buruarekin konektatzen gaitu eta senti dezakegunaz jabetzen gara. (Fontal et al., 2015, 10. or.). Hortik artea, emozioa eta

motibazioaren lotura hain zuzen ere.

Esan bezala, esperientzia estetikoak aurkikuntzaren gogobetetzea, jabetzaren eta pertenezaren sentimendua, eta abar, artean murgilduta daude, eta emozio, motibazio, eta sententzioen mundu bat pizten dute gudan. Honen harira, Abadek (2008) azaltzen duen bezala, haurrentzat jolasa plazerra lortzeko modu bat da, eta horregatik aukera ematen die beraien urrundu eta eraldatu nahi duten errealitatea, errealitateak inposatzen duena eta desatsegin zaiena, askatasunez sortzeko. Hortik, motibazio intrinsekoa lortzea, haurrak berak dira beren errealitatea sortzen dutenak, ez dira ezertara moldatu behar, haiek sortzen dute jolasa beraietzat. Horrela, jolasak funtzio sinbolikoaren bidez komunikatzeko, adierazteko, sortzeko eta pentsatzeko aukera ematen die haurrei (Abad, 2008), eta, horren ondorioz, haurrak berak dira ikaskuntza-prozesuaren protagonistak, eta, instalazioa osatzen duten elementuekin esperimentatuz eta elkarreraginez, beren ikaskuntza esanguratsuak eraikitzen dituzte.

5.4. HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

Burutu dudana bere osotasunean baloratuz, oro har lan ona izan dela esango nuke. Askok ikasi dut prozesu honetaz. Lehenengo aldia izan da nire kabuz horrelako ikerketa proiektu bat aurrera eramaten dudana, hori dela eta, hobekuntza batzuk sartuko nituzke berriro egingo banu. Baina prozesu guztietan bezala, beharrezkoa da lehenengo aldian zerbait gaizki ateratzea hurrengoan aldatzeko eta hobeto ateratzeko.

Hortaz, hobekuntza proposamenarekin abiatuko gara. Lehenik eta behin, akatsik garrantzitsuena, erabilitako espazioa eta materialen konbinazioa izango litzateke. Behin dena aztertuta, erabilitako materialak haurrentzat oso aberasgarriak izan zirela esango nuke baina aldi berean batere praktikoa ez zela izan. Ura eta hondarra nahastean, hondar bustia sortu zen eta izugarritzko pisua hartu zuen materialak. Gainera, kutxak kartoizkoak zirenez ura botatzerakoan biguntzen ziren. Horrenbestez, kutxak apurtzen hasi ziren. Dena jasotzen eta garbitzen bukatu nuen arte bi ordu pasa ziren eta ondorioz, psikomotritate gela bi orduz ezgaitua gelditu zen. Hau dena azaldu ondoren, nire lehenengo hobekuntza proposamena, instalazio hau gune natural batean egitea izango litzateke, aire librean. Materialak ez nituzke aldatuko nahiz eta "zikinak" izan; izan ere, erabilitako material bakoitza funtsezkoa izan da eta instalazioa osatu du.

Material horiek erabiltzearen arrazoietakoa bat, material naturalak erabili nahi nituela izan zen, hortaz, hondarra Hondarribiko hondartzara hartzera joan nintzen, baita maskorrak eta gunea mugatzeko erabili ziren landareak ere. Horregatik, materialak mantenduko nituzke eta espazioz aldatuko nuke.

Bigarren hobekuntza proposamena, jardueraren luzeera izango litzateke. Nik ordu beteko luzeera proposatu nuen. Errealitatea ikusi ondoren, ordu beteko saioa egitea gehiegi iruditzen zait, haurrak interesa galtzen joan zirelako. Gainera, psikomotrizitate gelan egitearen ondorioz, haurren interesa gelan zeuden elementuetan ere bazegoen. Banekien, instalazio bat gauzatzeko hoberena, gela zuri eta huts bat erabiltzea zela. Hala ere, beti ezin da guk imaginatzen dugun erara dena burutu eta kasu honetan proiektua aurrera eramateko nuen espazio bakarra psikomotrizitate gela zen.

6. BIBLIOGRAFIA

Abad Molina J. (2008). El Placer y el Displacer en el Juego Espontáneo Infantil. *Arteterapia. Papeles de arteterapia y educación artística para la inclusión social*, 3, (167-188).

Argüelles, G., eta Zelaieta, E. (2015). Ahozko adierazpena eta dramatizazioa Haur Hezkuntzako irakasleen baliabide. *Tantak*. EHUko Hezkuntza Aldizkaria. 27,(1).

Arnheim, R. (1999). *Consideraciones sobre la educación artística*. Paidós Estética. 22.

Barzel, A. (2001). Introducción. Larrañaga, J. *Instalaciones-ean* (87).

Cáceres, M. A. (2010). *La expresión corporal, el gesto y el movimiento en la edad infantil*. Revista digital para profesionales de la enseñanza, 9.

De Andrés-Rubio, M. N. (1993). *La expresión corporal en el segundo ciclo de Educación Infantil*. Amarú.

Díaz Obregón, R. (2003). *Arte contemporáneo y educación artística: los valores potencialmente educativos de la instalación*. Tesis Doctoral. Universidad Complutense de Madrid. Hemendik berreskuratua: <https://eprints.ucm.es/id/eprint/7259/1/T26912.pdf>

Domínguez, S. (2010). *El teatro en educación infantil*. Revista digital para profesionales de la enseñanza, 7.

Esteve, A. I. eta López, V. M. (2013). *La expresión corporal y la danza en educación infantil*. “La Peonza” – Revista de Educación Física para la paz, 9.

Fontal, O., Marín, S. eta García, S. (2015). *Educación de las artes visuales y plásticas en Educación Primaria*. Madrid: Ediciones digitales.

Pérez Gutierrez M. (2004). *La dramatización como recurso clave en el proceso de enseñanza y adquisición de las lenguas*. Glosas didácticas: revista electrónica internacional de didáctica de las lengua y sus culturas. 12, (4).

Ezezaguna. (2010). *Adierazpen artistikoa hezkuntzan*. Hik Hasi.

Learreta, B., Sierra, M. eta Ruano, K. (2005). *Los contenidos de expresión corporal*. Inde.

Lemarroy, M. S. (2004). *Lü: El cuerpo efímero*. Tesis profesional. Universidad de las Américas Puebla. Hemendik berreskuratua: http://catarina.udlap.mx/u_dl_a/tales/documentos/lap/lemarroy_g_ms/

Morón, M. C. (2011). *El juego dramático en educación infantil*. Revista digital para profesionales de la enseñanza. 12.

Núñez, L. eta Navarro, M. R. (2007). Dramatización y educación: aspectos teóricos. *Teoría de la Educación: revista interuniversitaria*. 19, urtarrila-apirila (225-252).

Rubio, L. eta Riaño, M.L. (2019). *Arte y Educación: Instalaciones en el aula de Infantil*. Revista d'innovació docent universitària. 11, (54-64).

Ruiz de Velasco, Á. eta Abad, J. (2011). *El juego simbólico*.

Ruiz de Velasco, A. eta Abad, J. (2016). *Lugares de juego y encuentro para la infancia*.

Sánchez-Romero, R. (2010). Didáctica del juego. Innovación y experiencias educativas.

Sierra, Z. (1995). *Juego dramático y pensamiento*. Revista Educación y Pedagogía Nos. (12-13).

Tejedo, F. (1997). *La dramatización y el teatro en el currículum escolar*. 12-2, or. (37-62).

Tresserras, A., Alvarez-Uria, A., Zelaieta, E. eta Camino, I. (2014). *Pedagogía de la situación: expresión dramática para la escuela*. Revista de Investigación en Educación. 12,2 (222-233).

Vizcarra, M. T. (2007). *Garapen Psikomotorra haur hezkuntzan (0-6 urte)*. EHU argitalpena.

Álvarez-Uria A., Garay B. y Vizcarra M. T. (2022). *Las instalaciones artísticas en educación infantil: Experiencias lúdicas y performativas*. Arte, Individuo y Sociedad, 34 (3), (891-910).

7. ERANSKINAK

I. ERANSKINA: JARDUERA EGIN BAINO LEHENAGOKO GALDETEGIA

- 1. Zer esan zenezake instalazio artistikoei buruz? Inoiz entzun duzu kontzeptu hau? Horrela bada zein kontestutan?**

Egia esan, lehenengo aldia da kontzeptu hau entzuten dudana. Jakin min handia daukat zertan datza ikusteko.

- 2. Espazio mota honetaz gain, beste motatako espazio sensorialekin edo hezkuntza-giroekin lan egin duzu (argi-mahaiak, gela sentsoriala...)?**

Argi-mahaiak erabili izan ditut bai. Zentzumenei loturiko ekintza eta jarduera ezberdinak ikusteko aukera izan dut, baina, nik ez dut martxan jartzeko aukerarik izan.

- 3. Zure ustez instalazio artistiko batean erreferentziazko helduak parte hartzeak ekintza erraztu edo zapuztuko du?**

Nire ustez, erreferentziazko helduaren parte hartzeak mugatua izan beharko luke. Arauak edo mugak betetzen direla bermatuz, baina, ekintza gidatu gabe.

- 4. Urteak joan ahala eskoletan dauden materialak asko aldatu direla uste duzu? Orain arte lanean egon zaren ikastetxeetan zein material motarekin egin duzu topo? Zerk harritu zaitu gehien?**

Ez daramatzat urte asko Haur Hezkuntzan, beraz, ez dut aukerarik izan adaketez jabetzeko. Egia da gure eskolan azken urte hauetan Montessori materiala txertatu dugula gure geletan, horren inguruko formakuntza jaso ostean.

- 5. Zein da zure iritzia material desegituratuen inguruan? Horrelakoak erabiltzen direla pentsatzen duzu? (Material desegituratua: Funtzio bakar edo espezifikorik ez duen jolas-elementua da, haurrak nahi duena edo imajinatzen duena izan daitekeena. Ez du jarraibide zehatzik, bere funtzionaltasuna erabiltzen duenak ematen dio. Adibidez, egurrezko makila batzuk, harri batzuk edo harea, guztiak egitura zehatzik edo itxirik gabeko materialak dira, joko librea bultzatzen dutenak.)**

Nire gusturako material egituratuak erabiltzeko joera handia dago oraindik. Nire aburuz, material desegituratuek erabilera anitzak izateaz gain, haurren sormena, askatasuna, etab sustatzen dute.

- 6. Helduok orokorrean, haurrek jolasteko erabiltzen dituzten materialei garrantzia ematen diogula pentsatzen duzu?**

Nire iritziz, ez zaie nahikoa garrantzia ematen.

- 7. Badakigu jokabide jakin batzuk aztertzea zaila dela egunerokotasunean, askotan ez baitugu horretarako denbora fisikorik; baina, noizbait gelditu al zara haur baten jolasari erreparatzen eta arretaz aztertu duzu? Zein ondorio atera duzu behaketa horretatik?**

Askotan egiten dut, batez ere salto-gelan. Ikaragarri maite dut haurren jolasak eta harremanak behatu eta aztertzea. Behaketa horietatik, ondorio honetara iritsi naiz askotan: helduok zapuztu eta oztopatu egiten ditugu harremanak, sormena, askatasuna,... askotan iruditzen zaigu gu garela gidariak, jakitunak, baina, gehienetan oker gaude, asko dugu haurrengandik ikasteko!

- 8. Zure ustez, zergatik daude hain lotuta jolasaren ekintza eta haurrak harremantzeko duten gaitasuna?**

Haurrak jolasaren bitartez harremantzen direlako. Hizkuntza ez da beharrezkoa lagun batekin jolasean aritzeko.

- 9. Hezkuntza mailan gure herrialdeak hobekuntza, edo berrikuntzak behar dituela uste duzu?**

Bai, zalantzarik gabe!

10. Nola ikusten duzu etorkizuna? Haurrak hezteko modua aldatuko dela pentsatzen duzu? Bai eskoletan bai etxeetan?

Une honetan gure eskola Ikaskomunitate bihurtzeko prozesuan murgilduta dago buru-belarri eta horrek onura handiak ekarriko dizkigula ziur nago. Familia eta eskolak harreman estuagoa izango duelarik eta haurren behar eta nahiak hezkuntzaren ardatza izango direlarik.

II. ERANSKINA: JARDUERA EGIN ETA ONDORENGO GALDETEGIA

1. Jakinda lehen aldia zela instalazio artistikoaren kontzeptuari buruz hitz egiten entzuten zenuena, lehen aldiz bat ikusi ondoren, zein izan da zure lehen inpresioa?

Haurrak oso gustora ikusi ditut material ezberdinak manipulatzeko eta horiekin esperimentatzeko.

2. Esan zenidanez, zentzumenei loturiko ekintza eta jarduerak ezberdinak ikusteko aukera izan duzu. Hortaz, zein ezberdintasun aurkitu dituzu bestelako hezkuntza-giroen eta instalazio artistikoaren artean? Azken honek beste batzuek ez bezalako onurak eskain diezazkigukeela uste duzu?

Ez daukat informazio nahikorik galdera erantzuteko.

3. Jarduera zuzendu gabea izan zen, erreferentziazko helduak ez zuten parte hartu. Honek, hasieran behintzat, haurrak galduak sentitzea dakarrela uste duzu? Orokorrean haur txikiak gidatzeko ohitura dagoela pentsatzen duzu? Jarduera berri baten aurrean aurkitzen diren bakoitzean guk gidatzea espero dutela uste duzu?

Haurrak ez nituen inongo momentutan galduta ikusi. Nire ustez, gidatzeko joera handia dago, baina, kasu honetan argi gelditu da inolako gidarik gabe haien sormenari jarraituz aurrera egin zutela.

- 4. Zer iruditu zitzaizun instalazioan erabilitako materiala? Hobeto funtzionatzen duen beste material baten truke aldatuko zenuke baten bat? Ideia guztiak ongi etorriak dira.**

Erabilitako materialak egokiak iruditu zitzaizkidan, nahiz eta espazio horretarako oso aproposak ez izan. Hondarra eta urarekin espazioa asko zikindu zen eta adin bereko beste taldea kaltetuta atera zen, ezin baitzuen goiza hartan salto-gela erabili. Materiala oso aproposa espazio irekian erabiltzeko.

- 5. Zein material desegituratu gustatu zitzaizun gehien? Zure iritziz, zein izan zen jolas gehien eman zuena?**

Kartoizko kaxek sekulako jokoak eman zuten, baita artileak ere.

- 6. Jarduera aurrera eramaten zen bitartean, arreta deitzen zizun jolas bereziren bat ikusi zenuen?**

Ikaragarri gustatu zitzaidan hurrek kartoizko kaxetako batean egindako artelana, txundituta utzi ninduten.

- 7. Haurren arteko harremanen bat deitu zuen zure arreta? Beraien arteko elkarrizketaren bat agian? (Instalazioetan, musikaririk ez jartzea gomendatzen da, izan ere, jokoaren soinua bera (haurren elkarrizketak eta soinua adibidez) ez litzateke hautemango, eta instalazioek duten aberastasunetako bat da.)**

Alde horretatik ez ninduen ezerk bereziki arreta deitu.

- 8. Euskal Herriko eskoletan horrelako dinamikak egunerokotasunean sartzeko aukera dagoela uste duzu? Edo baliabideak faltan ditugula pentsatzen duzu?**

Zailtasunak ikusten ditut egunerokotasunean horrelako jarduerak murgiltzeko. Dena den, esan beharra daukat haurrak oso gustora ikusi nituela, baina, material guztia ikusi, aztertu eta manipulatu eta gero, interesa galtzen hasi ziren eta ekintza uste baino lehen bukatu genuen.

- 9. Behar bezalako baliabide eta laguntzarekin, instalazio artistiko bat aurrera eramatera animatuko zinake?**

Bai, animatuko nintzake.

10. Jarduera honen inguruan onura baten bat nabarmenduko zenuke?

Haurrak oso gustora ikusi nituela, baina, hurrengo batean beste espazio bat erabiliko nuke. Ondoan, salto-gelako pareta zegoen eta denboratxo bat pasatakoan, interes gehiago zuten salto-gelako materialean, instalazio artistikoan baino. Nire ustez, salto-gelan interes handiko beste estimulu asko zeuden.

III. ERANSKINA: LANDA-OHARRAK

Jarraian, jarduera baloratzeko erabili nuen landa-oharra aurkituko duzue, bertan, jardueran gertatutakoak erregistratu nituen.

KURTSOA: 4 URTE	TUTOREA: MARTA ERASO
IKASLE KOPURUA: 16 HAUR	DATA: 30/09/2022
JARDUERA: INSTALAZIO ARTISTIKOA	IKASTETXEA: SAN VICENTE DE PAÚL


ORDUA	ERREGISTROA	KOMENTARIOA
9:16	Haurrak geldirik daude baina lekuan mugitzen.	Urduri daudela somatu daiteke. Azalpena entzuten ari diren bitartean ezin dira instalazioa osatzen duen eremura sartu, hortaz beraien ezinegona ere ikusi daiteke.
9:18	Haurrak instalazio barrura sartzen dira.	Adi-adi sartzen dira, dena begiratzen eta aztertzen ukitu baino lehen.
9:19	Haur gehienak eremuko erdi aldera joan dira, artilea ukitzera.	Nire ustez, material motarengatik artilea elementu basikoagoa ikusi dute eta horregatik jo dute lehenengo material horretara.

9:20	Aitor poliki poliki hurbildu da urez betetako kutxari niri begira. Baiezkoa egin diot buruarekin eta maskor bat utzi du erortzen kaxa barruan.	Aitorren bagiradak onarpena bilatzen zuen. Urarekin jolasteko irrikaz zegoen, baina ez zekien hori egin zezakeen ala ez.
9:20	Hori ikusita, besteak Aitor imitatzen hasi dira.	Denak irrikaz zeuden urarekin jolasteko, eta lehenengoa hasi denean (Aitor) denak hasi dira bera imitatzen.
9:20	Victoria saltoka hasi da instalaziotik.	Emozioz beteta dago, horrela azaleratzen du.
9:22	Aitor kutxa mugitzen hasi da aurrera eta atzera, maskorra begiratzen.	Kutxa mugitzean, ura mugitzen ari zelaz konturatu da, olatu txikitxoak sortu dira.
9:22	Kevin Uriel eta lagoba area hartzen ari dira eskuekin eta ondoren eskuak igurtzen.	Badirudi sentsazioa asko gustatu zaiela, ukimenaz gozaten ari dira. Emozioa adierazten ari dira.
9:24	Maidier eta Paulak maskor bat hartzen dute bakoitzak eta Maiderrekin keinu bat egiten dio beste norabait eraman dezaten. Biak batera arearen kutxara doaz eta horra botatzen dituzte maskorak.	Paulak Maidier jarraitzen du.
9:26	Miak artilezko arilkoa jarri du buruan.	Argi dago momentu honetan sinbolizazio bat gertatzen ari dela, Miak artilezko arilkoa txapela moduan erabiltzen ari da.
9:27	Aitorrek maskorak eta ura hartu ditu eta arearen kutxara bota du.	Aitorrek instalazioaren lehenengo trasbasea egin du maskorra erabiltzen.
9:29	Naiak plastikozko edalontzi bat hartu du eta maskorrekin trasbaseak egiten hasi da.	Trasbase zailak iruditzen zaizkit maskorra oso txikia delako.

9:30	Haur ugari, plastikozko edalontziak hartu dituzte eta trasbaseak egiten hasi dira.	Haur askok edalontzia hartu dutenez, material gehiago sartzeari beharrezkoa zela pentsatu dut eta ur eremuaren erdian edalontzi dorre bat utzi dut.
9:31	Edalontzi gehiago hartu dituzte eta materiala kutxa batetik bestera eramanez. Arearen kutxan ura bota dute eta uraren kutxan aritu dira.	Bi material hauen nahasketarekin esperimentatzen hasi dira, honen testura eta eraketa arakatzeko.
9:31	Maiden artilea manipulatu hasi da, artilezko harila bere eskuartearen hartuz, bere buruari bueltatu hasi da.	Artilearekin hankak lotu dituela ikusi duenean, lurrean eseri da eta oinen azpitik ateratu du artilea.
9:31	Kevin eskuak igurtzen jarraitzen ari da.	Hondarraren ondorioz, eskuetan geratu zaion testura arakatzeko ari da.
9:31	Luna artilezko arila jarri du buruan ere eta harekin gainean ibiltzen hasi da.	Bere buru gaineko oreka mantentzeko gaitasuna frogatu ari da.
9:32	“Es azúcar” hondarra ukitzen	Jolas sinbolikoa ikusi daiteke hemen.
9:33	Aday eta Mia artilearekin beren gorputzak inguratzen ari dira.	Motrizitatea eta koordinazioa lantzen ari dira, artilezko arila bizkarretik eta sabelera pasaz. Hau lortzeko mugimendu berdina eta bateratua egin behar dute bi besoekin.
9:35	Miak Sofia deitu du, berarekin jolastea nahi du, hala ere, Sofia instalazioaren kanpoaldean jarraitu du. Hasieratik ez du jardueran parte hartu izan nahi.	Mia eta Sofia beti ibiltzen dira elkarrekin.
9:35	Aysha, Mia eta Aday-rengana gerturatu da, artilearen artean mugitzen hasi da eta hurrengo esan die: “Mira, yo tambien estoy atrapada!”	Hau entzuteak harritu nau, Aysha ia ezer ez zuen azalartzen haurra baitzen.

9:39	Aday eta Mia elkarharremanetan daude, beraien artileak karrakatu direlako eta beraien artean hitz egiten hasi dira.	Bata besteari, itzaroteko, mantsago joateko, azkarrago etortzeko eta abarreko eskakizunak egiten ari diote elkarri.
9:40	Mia artiletik libratu nahi izan da, horretarako lurrean eseri eta hanketatik ateratzen saiatu da. Aldi berean, Aday aurrera jarraitu du.	Bestearen entzuketa ez da landu momentu honetan, bakoitzak bere interes propioa jarraitu du eta horrela ez dute ez bata ez besteak nahi zutena lortu.
9:41	Nahi zutena lortu ez dutenez, Miak bilatzen hasi nau eta laguntza eskatu dit.	Instalazioan sartu naiz eta eskuekin askatzen saiatu ondoren, guraizeekin artilea moztu dut askatzeko.
9:42	Mira tengo un cuchillo!	Jolas sinbolikoa agertzen da berriro.
9:43	Aday berriro hasi da bere gorputza artilearekin lotzen baina laugarren bueltan gelditu da eta atzera eman ditu bueltak dena desegiteko.	Artilearen artean harrapatuta gelditu dela gogoratu du momentu horretan eta gertatu zaionaz ikasi duenez badaki non dagoen muga.
9:45	Material berria sartu dut, brotxeta zotzak izan dira kasu honetan eta ekintza baten bidez integratu ditut. Zotzak hiru multzotan banatu eta goma batez lotu nituen. Multzo bakoitza eskuekin igurtzi nuen, soinu berezi bat ateratzeko eta instalazioan modu estrategiko batean ipini nituen.	Material berria sartzeko momentua dela ikusi dut. Jolasa oso laua da dagoeneko eta lehenengo minutuetako inspirazio leherketa hori galdua zegoen, hortaz material berria atera dut.
9:46	Aday artilezko arilkoa hartu, gorantz bota eta oinarekin ostiko bat eman dio. (Deitu nau egiten ari zena ikusteko.)	Jolas sinbolikoa ikusi daiteke. Artilezko arilkoa pilota bat zen.

9:47	Marianak zotzen multzoa hartu du eta nik egin dudan moduan igurtzi ditu, soinu berdina ateratzen, Kevin Uriel ondoan dauka eta bion artean jarraitu dute ekintza berdinean zotzen multzoa partekatuz.	Asko harritu nau Mariana hain gustora eta lasaitua ibiltzea materialaren esplorazioan. Mariana, ezinegon handia duen haurra da, kontentzio arazoak ditu eta honek asko pozten nau.
9:49	Emma eta Victoria landareekin ibiltzen hasi dira.	Emmak, harea eta uraren nahasketa irabiatzeko erabiltzen ari da.
9:51	Mariana artilezko arilkoa desegiten saiatzen hasi da.	
9:51	Elaia, instalaziotik atera da eta psikomotrizitate gelako blokeak ukitzen hasi da.	Baliteke instalazioarekiko interesa galdu izana eta beste motatako interesak bilatzen egotea.
9:52	Mariana landare bat hartu du eta indarrez astintzen hasi da. Ez du inor mindu baina bere gelakideak hurbil zituen eta pare bat kexaka hasi dira beldurtu baitira.	Marianaren ezinegona azaleratu da eta horrelako ekintzen bidez ateratzen ari da barruan duena.
9:54	Orokorrean, gelan nabaritzen den giroa nahasiagoa da, askoz ere urduriago daude haurrak. Ezinegon pixka bat nabaritzen hasia da haur batzuen artean.	Pixkanaka-pixkanaka instalaziotik deskonektatzen ari dira, eta dena instalazioaren inguruan biratzen ari zenean arnasten zen giro lasaia galtzen ari da.
9:55	Maiden lan eta lan hari da, material ezberdinak sartzen (maskorak, landareak, ura...) harearen kutxan, ondoren Victoria laguntzera etorri zaio.	Artelan izugarria sortu dute zituzten materialen kokapenarekin.

		
9:55	<p>Aitor Mainerengana hurreratu da, hasieran bakarrik ikustera. Mainer zutitu da eta bere lanaren haurren jarri da besoak luzatuz, Aitor ez hurbiltzeko. Azkenean, biak batera haritu dira, baina liskarra izan dute eta mindu dira.</p>	<p>Mainer bere lana aldatuko edo hondatuko zuten beldur zen</p>
9:57	<p>Kevin harearen beste kutxan ari da, ura eta harearekin dabil. Bi materialen nahasketaren ondorioz, material berria sortu da (hare bustia) eta Kevin zementua izango balitz bezala, kutxan paretetan jartzen ari da.</p>	<p>Oso lasai eta gustura ikusi dut Kevin, nahiz eta izatez mugimendua behar duen haurra den. Ez nuen espero sinbolizazio hau ikustea.</p>
9:58	<p>Mariana psikomotrizitate gelako blokeak mugitzen hasi da, dorre bat erori den arte, hortik aurrera beste dorreak ukitzen jarraitu du.</p>	<p>Gure desafioa bilatzen hasi da lehenengo dorrea erori denetik. Gelakide batek arreta deitu eta hori ez dela egiten esan dio.</p>

9:59	<p>Ikasleen erdia baino gutxiago daude instalazioan murgilduta, beste guztiak korrika eta builaka ari dira gela guztitik, denbora pasa ahala instalazioarekiko interesa galtzen joan dira eta adrenalina askatzeko beharra hasi da beraiengan..</p>	<p>Hortaz, jarduera bukatutzat emateko erabakia hartu dut. Batetik, instalazioan goxo zebiltzanengatik, Maider eta Kevinengatik adibidez, pena eman dit, baina egoera ezin zen mantendu jada. Hala ere, zaila egin zait ikasleak niri entzutea eta kaso egitea gelan zegoen algararekin.</p>
10:00	<p>Ordu honetan instalazioa amaitutzat eman da, ikasle guztiak instalaziotik atera dira eta gelaren beste aldean eseri gara borobilean. Instalazioaren inguruan egon gara hitz egiten, haur guztiei eman diet aukera honen inguruan zerbait esateko, nola sentitu diren ezgutzeko, gustora egon diren jakiteko... Protagonisten iritzia ezagutzeko hain zuzen ere. Honela, jarduerari amaiera eman diot.</p>	<p>Instalazioaren barruan zeuden momentutik, asanblada momentura pasatzea zaila egin zait, egoera oso desberdinak baitira eta energia 100etik Ora igarotzea lortu behar nuen. Saiakera ugari egin ondoren, asanblada hastera lortu dut. Galdera eragileak egin dizkiet, nahi izanez gero beraien jolasak azaltzeko. Sorpresa ona hartu dut momentu honetan, partaidetza asko egon da hitz egiterako orduan eta gauza oso interesgarriak esan dituzte.</p>